Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko azaroaren 18a, osteguna — 221 — Jueves, a 18 de noviembre de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA

*1839/2021 Foru Agindua, azaroaren 12koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren borondatezko ordezkarien errolda korporatiboa arautzen duen 2014ko azaroaren 4ko 881/2014 Foru Agindua aldatzen duena.*

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2021eko azaroaren 12an:

Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuaren 23. artikuluak egungo Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuari atxikitzen dio borondatezko ordezkarien errolda korporatiboa, eta ezartzen du errolda horri buruzko arauketa espezifikoa departamentu honetako foru diputatuaren foru aginduz ezarriko dela.

Emandako eskuduntza erabiliz, Gipuzkoako Foru Aldundiko borondatezko ordezkarien errolda korporatiboa arautzen duen azaroaren 4ko 881/2014 Foru Agindua eman zen, aldatua izan zena ekainaren 12ko 651/2017 eta apirilaren 12ko 404/2018 Foru Aginduen bitartez.

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, 6. artikuluan jasotakoarekin bat, ordezkarien errolda horrek ahalbidetzen du behar bezala egiaztatzea administrazio honen aurrean hirugarren baten izenean jarduten duten borondatezko ordezkariak, eta, beraz, pertsona horiek gaitzen ditu, dagokien gaiaren arabera, foru administrazioaren aurrean jarduteko.

Azken urteotan, irmotasunez egin da aurrera administrazio elektronikoaren ezarpenean. Horretan asko lagundu du hainbat kolektibori administrazioarekin telematikoki erlazionatzeko ezarritako betebeharrak, horren ondoriozko sinadura elektronikoen erabilerak eta beste tresna batzuen sendotzeak, hala nola jakinarazpen elektronikoarena edo erregistro elektronikoarena.

Une honetan, egokia da aurrerapen horiek guztiak ordezkarien errolda haren erregulazioan islatzea, eta, horregatik, aldaketa hau egitea komeni da, alde batetik, inskribatutako botereen gehieneko balio epea txertatuz, orain arte inskribatutako botereen epemugaren baliotasunari kalterik egin gabe, eta, beste alde batetik, ordezkatuak ordezkaritzaren aurreinskripzioarekin ados dagoela baliozkotzeko moduak lerrokatuz, administrazio publikoekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuak daudenekin.

Horren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauko 40.1.d) artikuluak ematen dion eskumena baliatuz,

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

*Orden Foral 1839/2021, de 12 de noviembre, por la que se modifica la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre de 2014, de regulación del censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral Gipuzkoa.*

La diputada foral del Departamento, con fecha 12 de noviembre de 2021, ha dictado la siguiente orden:

El artículo 23 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la administración foral, adscribe el censo corporativo de representación voluntaria al actual Departamento de Gobernanza, estableciendo que la regulación específica de dicho censo se hará mediante orden foral de la diputada o diputado foral de este departamento.

En ejercicio de dicha atribución, se dictó la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre de 2014, de regulación del censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral Gipuzkoa, modificada mediante Orden Foral 651/2017, de 12 de junio y Orden Foral 404/2018, de 12 de abril.

Dicho censo de representación, de conformidad con lo que se recoge en el artículo 6 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, permite comprobar válidamente la representación voluntaria de quienes actúan ante esta administración en nombre de un tercero y, por tanto, habilita a estas personas a actuar, en función de la materia elegida, ante la Administración Foral.

En estos últimos años, se ha avanzado de manera decidida en la implantación de la administración electrónica. A ello ha contribuido notablemente la obligación impuesta sobre diversos colectivos para relacionase de manera telemática con la administración, con el consiguiente uso de las firmas electrónicas y la consolidación de otras herramientas como puede ser la notificación electrónica o el registro electrónico.

Es oportuno en estos momentos que todos estos avances tengan su reflejo en la regulación de aquel censo de representación, por lo que se plantea la conveniencia de esta modificación, incorporando, por un lado, un plazo máximo de validez de los poderes inscritos, sin perjuicio de mantener el periodo de validez de los hasta ahora inscritos y alineando, por otro lado, las formas de acreditación de la conformidad con la preinscripción de la persona representada, con la obligación a la que están sometidos diversos sujetos de relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas.

Por todo ello, y en el ejercicio de las funciones atribuidas por el artículo 40.1.d) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

EK\CV GAO-I-2021-07396

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Aldatzea 2014ko azaroaren 4ko 881/2014 Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren borondatezko ordezkarien errolda korporatiboa arautzen duena.*

Baldintza hauetan aldatzen da 2014ko azaroaren 4ko 881/2014 Foru Agindua:

*Bat.* 3. artikuluaren 2. atala honela idatzita geratzen da:

«2. Ordezkaritza epe jakin baterako emango da, ordezkaritzaren azken eguna adierazita, gehienez ere bost urterako aurreinskripzioa egiten den egunetik aurrera.

*Bi.* 5. artikuluaren 2. atala honela idatzita geratzen da:

«2. Ordezkatuak hauetako bitartekoren bat erabili behar du ordezkaritzaren aurreinskripzioarekin ados dagoela egiaztatzeko:

a) Bitarteko elektronikoak. Ordezkatuak Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan dagoen aplikazio informatikotik baliozkotuko du ordezkaritzaren aurreinskripzioa. Horretarako, sinadura elektroniko aurreratua erabiliko du, ordezkatuak berak edo honen legezko ordezkariak, baldin eta honen izendapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan ageri bada.

b) Dokumentu publikoan edo notarioak egiaztatutako sinadura daraman dokumentu pribatuan emandako ahalordea erabiliz.

— Notario-ahalordea. Ordezkatuak notario-ahalordearen bitartez izendatuko du ordezkaria. Notario-ahalorde horren edukiak bat etorri behar du erroldan inskribatutako ordezkaritzaren eduki, gai eta indarraldiarekin.

— Sinadura egiaztatua. Erroldan ordezkaritza aurreinskribatzeko inprimakia pertsona ordezkatuak sinatu egin behar du, fede-emaile publiko baten aurrean.

c) Fisikoki bertaratzea. Ordezkatua, bera edo ordezkariaren bitartez, xede horretarako prestatua dagoen Foru Administrazioaren edozein bulegotara bertaratuko da. Hemen, identifikatu eta, halakorik badagokio, ahalordea behar bezala egiaztatu ondoren, ordezkariak erroldan aurreinskribatutako ordezkaritzaren inprimakia sinatuko du.

Ordezkatua bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera behartuta dagoenean, ezin izango dute pertsonazio fisikoko sistema erabili ordezkaritza baliozkotzeko. Muga hau ez zaie aplikatuko d) letran triangulazio sistema erabiltzera gaituta dauden pertsona edo erakundeak.

d) Triangulazioa. Ordezkatuaren adostasuna triangulazio sistemaren bidez egiaztatu ahal izango da. Honela funtzionatzen du:

— Ordezkariak aurreinskribatutako ordezkaritzaren dokumentu digitalizatua aurkeztuko du, ordezkatuak eskuz sinatua, egoitza elektronikoaren bidez.

— Foru Administrazioak, behin dokumentazioa egiaztatuta, ordezkatuari jakinaraziko dizkio, ordezkaritzaren aurreinskripzioaren kopia eta pasahitza. Jakinarazpen hori Herritarren datuen foru erroldan jakinarazpenak egiteko ageri den posta helbidean egingo zaio ordezkatuari.

— Ordezkatua ados badago aurreinskribatutako ordezkaritzarekin, pasahitza emango dio bere ordezkariari.

— Ordezkaritza hori, ordezkariak pasahitza Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan dagoen aplikazio informatikoan sartzen duen unean alta emango da.

Ordezkatua bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera behartuta dagoenean, ezin izango dute triangulazio sistema erabili ordezkaritza baliozkotzeko. Salbuespen gisa, ondasun erkidegoak, jabetza horizontaleko araubidean dauden jabe erkidegoak,

DISPONGO

*Artículo único. Modificación de la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre de 2014, por la que se regula el censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral Gipuzkoa.*

Se modifica la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre de 2014, en los siguientes términos:

*Uno.* El apartado 2 del artículo 3 queda redactado de la siguiente forma:

«2. La representación se otorgará por un plazo determinado, indicando la fecha límite de la representación, con un máximo de cinco años a contar desde la fecha de la preinscripción».

*Dos.* El apartado 2 del artículo 5 queda redactado de la siguiente forma:

«2. La persona representada deberá acreditar su conformidad con la preinscripción de la representación de alguna de las formas siguientes:

a) Por medios electrónicos. La persona representada validará la preinscripción de la representación desde la aplicación informática ubicada en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con firma electrónica avanzada, bien directamente o bien a través de su representante legal cuyo nombramiento figure en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Mediante poder otorgado en documento público o en documento privado con firma notarialmente legitimada.

— Poder notarial. La persona representada designará una persona representante mediante poder notarial. El contenido de ese poder notarial deberá ser acorde con el contenido, materias y vigencia de la representación preinscrita en el censo.

— Firma legitimada. El documento impreso de la preinscripción de la representación en el censo será firmado por la persona representada en presencia de fedatario/a público/a.

c) Personación física. La persona representada comparecerá personalmente o a través de su representante en cualquier oficina de la Administración Foral habilitada al efecto, donde, previa identificación y acreditación, en su caso, de la suficiencia de los poderes, firmará el documento impreso de la representación preinscrita en el censo por la representante.

Cuando la representada sea una obligada a relacionarse por medios electrónicos no podrá utilizar el sistema de personación física para validar la representación. Esta limitación no será de aplicación a las personas o entidades habilitadas a utilizar el sistema de triangulación en la letra d).

d) Triangulación. Se podrá acreditar la conformidad de la persona representada mediante el sistema de triangulación que tiene el siguiente funcionamiento:

— La persona representante presentará por medio de la sede electrónica el documento digitalizado de la representación preinscrita firmado manuscritamente por la persona representada.

— Una vez verificada la documentación, la Administración Foral notificará a la representada, copia de la preinscripción de la representación junto con un código de referencia. La notificación se realizará a la dirección postal de la persona representada que figure a efectos de notificaciones en el Registro foral de datos ciudadanos.

— En caso de conformidad con la preinscripción de la representación, la representada comunicará el código de referencia a su representante.

— La representación se dará de alta cuando la representante introduzca el código de referencia en la aplicación informática a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cuando la representada sea una obligada a relacionarse por medios electrónicos no podrán utilizar el sistema de triangulación para validar la representación. Como excepción, las comunidades de bienes, las comunidades de propietarios en régi-

EK\CV GAO-I-2021-07396

sozietate zibilak, elkarteak, erakunde erlijiosoak eta Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako zuzendari nagusiak ebazpen bidez baimendutako beste pertsona edo entitateek erabili ahalko dute triangulazio sistema.

*Xedapen gehigarri bakarra. Inskribatutako ordezkaritzen indarraldia.*

Foru agindu hau indarrean jartzen denean Gipuzkoako Foru Aldundiko borondatezko ordezkarien errolda korporatiboan inskribatuta dauden ordezkaritza guztiek lehendik aurreikusten zen indarraldia mantenduko dute.

*Amaierako xedapen bakarra. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hala ere, 2014ko azaroaren 4ko 881/2014 Foru Aginduaren 5. artikuluaren 2. paragrafoaren aldaketak, foru agindu honen bigarren puntuan jasoak, 2022ko urtarrilaren 10etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2021eko azaroaren 16a.—Alfonso Acarreta Rodríguez, Departamentuko idazkari teknikoa.

(7396)

men de propiedad horizontal, las sociedades civiles, las asociaciones, las entidades religiosas y aquellas otras autorizadas por el director o directora general de Servicios e Innovación y Transformación de la Administración mediante resolución al efecto, podrán utilizar el sistema de triangulación.

*Disposición adicional única. Vigencia de las representaciones inscritas.*

Mantienen la vigencia prevista anteriormente todas aquellas representaciones que, a la entrada en vigor de la presente orden foral, se hallen inscritas en el censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Disposición final única. Entrada en vigor.*

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación. No obstante, la modificación del apartado 2 del artículo 5 de la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre de 2014, recogido en el punto dos de la presente Orden Foral producirá efectos a partir del 10 de enero de 2022.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 16 de noviembre de 2021.—El secretario técnico del Departamento, Alfonso Acarreta Rodríguez.

(7396)

EK\CV GAO-I-2021-07396